

 BOOKTEGIA close-up portrait of Alfonso Sastre, an elderly man with a full white beard and glasses, looking directly at the camera. He is wearing a dark jacket over a dark shirt. The background is slightly blurred, showing other people in a crowd.

Alfonso Sastre bere
buruaz beste
egiten du

ALFONSO SASTRE
itzulpena: Joxe Mari Carrere



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ALFONSO SASTRE

Alfonso Sastrek bere burua
beste egiten du

epilogo bakarreko drama

itzulpena: Joxe Mari Carrere

hitzaurrea: Fito Rodriguez

ALFONSO ADISKIDEA, JOXEMARI LAGUNAREN BIDEZ

Alfonso Sastrek bere buruaz beste egiten du ekarri du euskarara Joxemari Carrerek. Aspalditik ezagutzen nuen jatorrizko testua; baita Joxemarik egindako bertsioa ere. Estimatu behar zaio ahalegina berari, ezbairik gabe, eta Booktegi hura plazaratzeko aukera ematea ere bai. Neroni ere aritu naiz inoiz Alfonsoren testuak euskarara ekartzen¹ eta, daitort, ez da lan makala izan; ez itzulpenarena ezta, hura bukatu ondoren, argitaratu ahal izateko eman beharreko urratsak ere. Alfonso idazle maudite izan baita.

Alfonsok berak aipagai dugun testua kaleratu zuenetik honakoa utzi zigun idatzita:

«Aspalditik ari nintzen Epilogoia izenburua zuen drama txiki bat idazteko asmotan. Izan ere, mota honetako testuak idazteko fasean nago. Atzo bururatu zitzaidan egoera dramatikoia –hotel batera hiltzera iristen den bidaiaria; ezer originalik ez (nik neuk aspaldi idatzi bainuen Ana Kleiber)–, eta hasteko, ordenagailuan hiru elkarrizketa-orri idatzi eta zuzendu nituen. Gauean eta gaur goizean beste esaldi batzuk idatzi ditut eskuz. Orain serio ekingo diot Epilogoaren idazketari, drama bat jokaldi bakar batean, zeinarentzat amaiera bikoitza bururatu baitzait: epilogo moduko bat epilogoari. Sandra Harper irakasleak gutun bat idatzi zidan maiatzean, nire argitaragabeko idazlan bati buruz galdetzeko, Estreno izeneko aldizkarian argitaratu nahi zuen. Nik ez neukan ezer eta orain, berriz, dena ondo badoa, izango dut. (Krimen arrotzak trilogia poliziakoaren bigarren eta hirugarren lanak ere argitaratu gabe daude oraindik, baina urtea amaitu baino lehen argitaratuko direlakoan nago). Motibazio zirkunstantzialari dagokionez, obra hau dibertimendu posible bihurtuko dena, hemen oso pertsonalizatua bada ere, nire erreforma politikoari buruzko lpuinaren ildotik, gaur egungo egoeraz ari da, Vicente Molina-Foixek “Caza de brujas vasca” izeneko artikuluan (El País, 1997ko uztailaren 22a) definitzen zenaz, adibidez, aintzat hartu dut. Artikulu horri buruz, Doilorkeriaren Historia Unibertsalean agertzeko moduko pasarte bat idatzi du: «Badirudi hiltzailea eta haren konplizeak isolatzea dela gehien-gehienok bat egiten dugun puntua, eta behin baino gehiagotan idatzi da izurrite hitza. Hilketaren munizioa beren botoarekin ematen duten jabeen dendetan ez erosteko proposamenak egin behar dira, HBko buruzagiak joaten diren ekitaldietan publikoki ez parte hartzeko proposamenak zabaldu behar dira eta, nire ustez, hedapen egingarria izango luke kulturaren arloan honako honek: Alfonso Sastre bezalako

1 <https://www.booktegi.eus/liburuak/zutoin-beltza/>; “Zutoi beltza”, adhara .2021.
<https://www.artezblai.com/libreria-artezblai/textos-teatrales/emmanuel-kanten-azken-egunak-sastre-alfonso/>

idazle konplize batek, adibidez, botatzen duen izurrite harengandik aldentzera eraman beharko luke honek, ez dadila ez solasaldi ezta antologietan agertu ere, eta oparitu zaizkion hainbeste sari, dirulaguntza eta omenaldi instituzional bertan behera geratu behar dira».

Abertzaletasunari buruzko nire ikuspuntuak –bi aldeetatik indarkeriaren funts ideologikoan dagoen gaia– honetan datza: Espainiaren arazoarekin –edo Espainia arazotzat (Laín Entralgo), edo eskuin muturrean Espainia arazorik gabe eman zuena, bereziki (Calvo Serer)– ez dago alde nabarmenik Felipe González (PSOE), Manuel Fraga Iribarne edo José María Aznarren (PP) eta Julio Anguitaren (PC/IU) jarreraren artean –Espainiako parlamentuko hiru adibide esanguratsu jartzearren–, guztiak espainiar nazionalista sutsuak baitira. Egungo euskal herritartasunari dagokionez, nire arimako Madrilekiko leialtasuna eta maitasuna (kritikoa) alde batera utzi gabe, espainiarrak ez diren euskaldun asko ezagutzen ditut, ez baitute haien burua espainiartzat hartzen, baizik eta beren burua horretara behartzen dituen indar baten pean ikusten dutelako daude espainiartuak. Egia ukaezina da hori, eta niri dagokidanez, ez naiz, noski, ez euskal nazionalista, ezta nazionalista espainiar bat ere, eta horrek, batzuentzat, nire burua sutara botatzeko baino ez du balio izan. Nire jarrera sinplea da, eta euskal herritar guztiak, Kataluniako eta Galiziako homologoak bezala, espainiarrak izan ez arren, Espainiako Konstituzio erreformatu batek eskubide guztiak babestu behar dituela pentsatzera mugatzen da.»

Arrosa gorriak eskaini zizkion Alfonso Sastrek Migel Serveti.

Bera, Alfonsoren antzera, pentsamenduaren historian toki duina merezi duen beste intelektual bat izan zelako.

Biei buruz hitz egiterakoan duintasuna aipatu behar da, zeren pentsatzen zuena defendatzeagatik erre baitzituzten, Servet bizirik zegoela eta Alfonso, sinbolikoki izan arren, hil ondoren.

Ez ziren zigorraren aurrean makurtu eta nahiago izan zuten hiltzea beren iritzia errefusatzea baino.

Alfonso Sastre askotan erre nahi izan dute Espainiako iritzi publikoaren kudeatzaileek beste intelektualak ez bezala boterearen esanetara makurtu ez delako, bere pentsamendu aske bezain utopikoa defendatzen behar adinako duintasuna azaltzeko kemena izan baitu eta, finean, nagusien alde lerratu beharrean herri xehearekin bat eginik kokatu izan delako beti.

Alfonsok, bere lan intelektualaren bidez, erakutsi zigun behin eta berriro zenbat balio duen utopiaren bilatzeak eta, Euskal Herrian bereziki, inperioen aurkako borrokan elkartasunak.

Baina inperioen botereak indar izugarria daukela badakigu, oraingo egoera geoestrategiakoak erakusten digun moduan.

Bai, beldurraz haratago, izua ere eragiten du inperioak eta, horregatik, ezabatuak bezain birrinduak izan dira historian herri altxamenduak, Nicolas II.ak San Petersburgon 1905ean manifestari baketsuekin egindako sarraskia bezalakoak edo herriak irabazitako gobernuak, Espainiako Errepublikarena edota Txilen Allendek bideraturiko erregimen aldaketarena modukoak.

Baina, horrekin batera, beti egon dira herriaren aldeko kultur ekintzaileak: José Bergamín, León Felipe, André Malraux, Pablo Neruda, Bertold Brecht, Louis Aragon, Paul Éluard...edo Alfonso Sastre bera, herri jazarriaren aldeko lubakia hautatu dutenak.

Et l'on voyait marcher ces va-nu-pieds superbes sur le monde ébloui², baina abian ikusiko gaituzte, oinutsik, mundu harroputzaren aurrean», zioen Victor Hugok, batere eskubiderik ez zuen herritarren martxa iraultzailea aldarrikatuz.

Ildo horretatik Alfonsok idatzitakoa euskaraz irakur dezakegu orain Joxemari Carrererek egindako lana dela bide. Eskerrik asko.

Fito Rodriguez

2023-02-23

² Eta hor ikusten ziren txiro ezin ederrago horiek mundua beren ibilerarekin liluratzen.

EKITALDI BAKARRA

Arratsaldea da. Hotel bateko harrera bakartia. Harreragilea edo atezaina — Camelia izenekoa—, liburu bat irakurtzen ari da. Itxura arrunteko bidaiaria sartzen da.

Camelia

Ongi etorri, jauna, Valdemar izeneko herri honetara, Mediterraneo itsasoagatik eta bere hondartza urdinengatik ezaguna, eta baita bere amildegi eder eta malkartsuengatik ere.

Bidaiaria

Ondo da, harrera ona da. Hara: ba al duzue gela bat hutsik, egun laurden bat emateko, gutxi gora behera? Alegia (bere erlojua begiratzen du), orain arratseko zortziak badira, nire erloju honek dioen moduan, gehienez ere gauerdira arte, dena ondo badoa, espero dudanez. Hau da, hamabiak arte, nahiz eta, segur aski lehenago utziko dudan.

Camelia

Egun laurden bat? Ez daukagu produktu hori. gutxieneko zatia, jauna, egun osokoa da, hogeita lau ordu, zuk nahi duzunean joan bazaitezke ere, behin gela hartu ondoren eta, jakina, derrigorrezko hogeita lau orduak ordaindu ondoren.

Bidaidaria

Zer esan nahi du derrigorrezkoak?

Camelia

(Sorbaldak arin gora ekarrita) Halaxe esan ohi dugu.

Bidaiaria

Prezioa delarik.

Camelia

Nola?

Bidaiaria

Galdetzen dizut gutxieneko, derrigorrezkoak alegia, hogeita lau ordu horien prezioa.

Camelia

Zortzi mila pezeta, gosaria barne.

Bidaiaria

(Hasperen triste batez) Gosaria! Zertarako?

Camelia

Gosaltzeko, jauna. Gure bezeroen antzinako ohitura da. (Ahopeka) Antzinakoa esan dut? Zer esan nahi ote izan dut?

Bidaiaria

(Goibel dirudienez) Nik ez dut gosaltzeko asmorik, ene, anderea. (Nahigabeko jakin minez, galderari garrantzi handirik eman gabe) Zer jartzen duzue?

Camelia

Bufet librea da: hirugiharra, arrautza frijituak, kafea, kruasanak, eta bestelako delicatessenak, hala esaterik onartzen badidazu.

Bidaiaria

(Ezpainak arin milikatuz bere baitarako dio) Bai ona, ene. (Pentsakor) Zortzi mila pezeta, ezta?

Camelia

Badiarako bistekin.

Bidaiaria

(Karterako dirua kontatzen) Eta bistarik gabea?

Camelia

Bistarik gabe ez dago.

Bidaiaria

Bistarik gabe logelarik ez dago? Barne patioaren bat, biltegiaren baten horma, zabortegiaren bat?

Camelia

(Baieztatzen) Barneko logelak, bai.

Bidaiaria

Horixe ba.

Camelia

Beteak daude.

Bidaiaria

Tira! Bistarik gabe eta hain azkar betetzen dira?

Camelia

Merkeagoak direlako

Bidaiaria

Zer kostu dute?

Camelia

Hirurehun pezeta gosaririk gabe.

Bidaiaria

Eta gosariarekin?

Camelia

Lau mila.

Bidaiaria

Ene!

Camelia

Nola diozu?

Bidaiaria

Aldeak harritu nau. Hiru mila eta zazpiehun kruasan batek?

Camelia

Arrautzekin esan dizut.

Bidaiaria

Ez zaitez haserretu.

Camelia

Bufet librea, zukuak eta saltxitxak, ez al dakizu ba?

Bidaiaria

Bai, bai. (Bere diru eskaxak kontatuz) Azkenaldian diruz gaizki nabil nire bizitza osoan.

Camelia

(Sorbaldak altxatuz) Bai. (Ez du ezer ulertu)

Bidaiaria

(Pozez) Badaukat, aleluia. Emadazu logela. (Billeteak mahai gainean jartzen ditu)

Camelia

Zure nortasun agiria, mesedez.

Bidaiaria

Noski, andrea. (Ematen dio) Zuretzat har dezakezu.

Camelia

Ez da beharrezkoa. (Idatzi egiten du eta bueltatzen dio. Billeteak ikusitakoan:) Orain ordainduko duzu?

Bidaiaria

Zertarako geroago? Gainera, hildakoek ez dute ordaintzen. Tira. Broma da. Benetan ez duzu nire NANA nahi?

Camelia

Zertarako nahiko nuke ba?

Bidaiaria

Orduan bota dezagun hementxe bertan. (Paper ontzian botatzen du) Ez zaizu axola?

Camelia

Ez, baina ez da ohikoa.

Bidaiaria

Bestalde, galdera bat egin diezazuket?

Camelia

Jakina, jaun adeitsua.

Bidaiaria

Ba al dago herrian buruaz beste egiteko leku aproposik?

Camelia

(Profesional) Bai, bat edo beste badago, baina ez dizut gomendatuko. Gaez batez ere. Zaila da bertara heltzea lekua ezagutu ezean. Gainera, ez ditu baldintza onak.

Bidaiaria

Zer dela eta?

Camelia

Ez da aski segurua. Azkeneko suizida, esaterako, salbatu egin zen.

Bidaiaria

Hara! Frakasoan izan zen orduan?

Camelia

Salbatu bakarrik ez, gainera hankamotz gelditu zen betirako.

Bidaiaria

Tragedia bat beraz.

Camelia

Bai, jauna. Eskerrak gero beste leku batean bere buruaz beste egitea lortu zuela. Betirako hori ez zen hainbesterako izan.

Bidaiaria

(Hasperen egiten du arinduta) Eskerrak. (Geldiunea) Non suizidatu zen azkenean?

Camelia

Madrilera joan zen

Bidaiaria

Ez esan Biaduktora joan zela?

Camelia

Hala uste dut

Bidaiaria

Arrunkeria bat. Gainera, han gauzak jarri diren moduan, akrobata izan behar da, madarikatu alaen horiek jarri dituzten baranda horiekin.

Camelia

(Bere gauzetan dabil; interesik gabe galdetzen du, telefonoa hartzen duen bitartean, kontsulta bat konponduz, ahots apalez) Zeintzuk dira madarikatu alaen horiek?

Bidaiaria

Udala, suposatzen dut. (Badirudi zerbait dioela)

Camelia

Bai?

Bidaiaria

Ez, ezer ez. nire aitonarekin ari nintzen pentsatzen. Manuel zuen izena.

Camelia

Eta?

Bidaiaria

Putzu batera bota zuen bere burua, amildegia edo zortzigarren pisuaren edo zubiaren edo biaduktoaren aldaera dena. Barkatu. Nire gauzetan nengoen ozenki.

Camelia

Ni ere nire gauzetan aritzen naiz, jauna, baina nire gauzak zuek zarete. (Giltza luzatzen dio) Nahi duzunean zure logelara igo zaitezke, 666garrena da.

Bidaiaria

(Izututa) Alajainkoa!

Camelia

Zerbait gertatzen zaizu?

Bidaiaria

Piztiaren zenbakia da.

Camelia

Gizona, ez da horrenbesterako izango.

Bidaiaria

Apokalipsian. Ez al duzu Apokalipsia irakurri?

Camelia

Ez, nik best-sellerrak baino ez ditut irakurtzen.

Bidaiaria

Apokalipsia best-seller bat da.

Camelia

Ni Vargas Llosaz eta Humerto Ecoz ari naiz.

Bidaiaria

Tira.

Camelia

ABC egunkarian datozenak.

Bidaiaria

666! Ez al duzu Bibliarik nonbait?

Camelia

Zure logelan baduzu. 666 zenbakia ez duzu gogoko? Superstizioso al zara?

Bidaiaria

Ez, ez; eta 666 zenbakia oso gustukoa dut. Ikaratzen nau eta maite dut. Pixka bat korapilatsua naiz, andrea.

Camelia

Inondik inora, jauna.

Bidaiaria

Eta apur bat astuna, ezta?

Camelia

Gure bezeroak jende zoragarria dira, jauna. Beraz, bota esateko duzuna. Erne nago, esan ohi den moduan.

Bidaiaria

Ni ere jende zoragarria naiz?

Camelia

Zu ere bai, jauna.

Bidaiaria

Non geunden? A, bai. Biaduktoarena. Eskailera bat eraman beharko zuen.

Camelia

Nork? Ez dut ulertzen.

Bidaiaria

Biaduktoko suizida hark, gauzak dauden moduan egonda.

Camelia

Ez dakit, baina burua aski ondo apurtu zuen.

Bidaiaria

Amildegiez oso ondo hitz egin zidaten.

Camelia

Valdemarren? Amildegia gehiegixoa esatea da. Bakarra dago, hori bai, luze-luzea eta zuzen-zuzena. Baina orain, gauez, ez duzu aurkituko. Biharko utz ezazu.

Bidaiaria

Hara, zerbait bururatu zait. Ez al dago hiltzaile on bat herri honetan?

Camelia

Bat badago, baina oso aguretuta dago. Bere amaginarreba hil zuen duela berrogeita hamar urte.

Bidaiaria

Hori al da bere ibilbide osoa? Ez al duzue inor hoberik?

Camelia

Lehenago gorri mordoa hil zuen. Gerraz ari naiz. Gure aitak kontatu zidan. Ni ez nintzen jaioa oraindik.

Bidaiaria

(Ideiarekin liluratuta) Gorriak, beraz? Ez ote zen falangista izango?

Camelia

Gure aitak zioen alkandora zaharrekoa zela, baina ez dakit zergatik. Oso dotorea eta garbia zen, eta bibotea horrelaxe zeukan moztuta. Oraindik ere herriko agure sinpatikoa da.

Bidaiaria

Oso zahartuta al dago?

Camelia

Oso ondo dago. Igandero irtenaldiak egiten ditu, makuluaz lagunduta, ereserki ederrak kantatuz. Montañas nevadas, banderas al viento, edo baita: Prietas las filas, recias, marciales, nuestras escuadras van, edo baita: yo tenía un camarada, entre todos el mejor.

Bidaiaria

Kanta ederra, halaxe da. Orduan, hain osasuntsu egonik, punteria ona izango du oraindik. Ni geldi geldirik egongo nintzateke.

Camelia

Ez dakit berak nahiko lukeen. Arrazoi politikoengatik, beharbada. Gure aitak zioen: Timoteo jauna idealista handia da.

Bidaiaria

Orduan, arrazoiren bat emanez gero...

Camelia

Ez dakit, hitz egin ezazu berarekin. Nire etxe aurrean bizi da, Kale Nagusian. 15garrenean. (Paper batean idazten dio) Hemen duzu, Timoteo Gutierrez jauna.

Bidaiaria

(Papera hartuz) Eskerrik asko. Primeran datorkit. Suizidio ederra litzateke, ultra batek akabatua izatearen itxura hartuko baitzuen. Zer gehiago eska dezake idazle batek! Suerte pixka batekin Garcia Lorca bihurtzen da norbera; zoragarria dena..., ondorengoentzat, jakina. Baina zoragarri, hala ere.

Idazle eta artista gutxiri egokitzen zaio halako mauka. Kulturaren martiria! Uste dut patuak herri honetara ekarri nauela. Nik amildegi txukun bat besterik ez nuen

bilatzen, baina hau hobea da, askoz ere hobea. Hau zortea, ene! Kopatxo bat hartzera noa. Non dago taberna?

Camelia

Baina zure diru guztia eman didazu.

Bidaiaria

(Jota) Egia! Mailegu bat egingo zenidake? Berme gisa erloju hau emango dizut, Longines bat da.

Camelia

Ez da beharrezkoa, jauna. Utzidazu trago batera gonbidatzen, orain inor ez dela agerian. (Mostradore azpitik botila bat ginebra ateratzen du eta bi kopa. Bidaiariak liluratuta begiratzen du)

Bidaiaria

Aingeru bat zara!

Camelia

Ordu asko dira hemen. Nik tarteka zurrupada bat —barkatu hitza—, ematen diot.

Bidaiaria

Inor ageri ez denean!

Camelia

Horixe ba! (Barre egiten dute eta trago bana hartzen dute)

Bidaiaria

(Alaitsu) Eskuzabala zu! Ona!

Camelia

Ez da ezer, jauna.

Bidaiaria

Hiltzaile falangistari dagokionez, jakin al zen zergatik hil zuen bere amaginarreba? Ez zen gorria edo separatista izango?

Camelia

Aberatsa zen; nik uste dut bere diruagatik. Bera eroetxe batean sartu zuten, eta gero, irten zenean, herentzia kobratu zuen xuxen.

Bidaiaria

Ederki ekarria hitza. Tira, ea sena bera kontserbatzen duen, eta kontuan hartuta ni terrorista bat naizela eta aberriari traizioa egindakoa...

Camelia

Hala al zara?

Bidaiaria

Bai, andrea, bai. Hala ere tragoa buka dezaket?

Camelia

Noski, jauna. Ni ez naiz politikan sartzen.

Bidaiaria

Ezta ni ere. Zuregatik. (Edaten du, eta bere begiek dir-dir txiki bat egiten dute, txispatuta balego bezala. Ginebra gozatzen du) Ondo egoten da hemen. Nik nahiago horrela: azken une goxoak... Zurrunga luze bat ez den azken hatsa... Ulertzen al didazu?

Camelia

Bai, jauna.

Bidaiaria

Andre goxoa zara zu, eta ederra gainera, uzten badidazu esaten. Bihotzez eta zintzo diotsut. Etzazu hartu losintxa bezala. Gorroto ditut losintxak, eta zuk?

Camelia

Nazkatzen naute. (Isilune bat. Begiratu:) Zu ez zara oso guapoa, jauna, baina goxoa bazara. (Isilunea) Eta Timoteo Jaunak kale egiten badizu? Esan nahi dut, hemen Valdemarren, zure buruaz beste egiteko asmoarekin jarraitzen baduzu.

Bidaiaria

Amildegia hartzu beharko nuke berriro.

Camelia

Laguntzerik nahi al duzu? Gure lanbidearen parte ere bada, bidaiari jaun-andreak behar duten horretan laguntzea.

Bidaiaria

Esan, esan.

Camelia

Eta zergatik ez pozoia? Izango dira zapore txarrekoak ez diren pozoiak. Uste dut badaudela primerakoan eta minik ematen ez dutenak.

Bidaiaria

Nola dakizu hori? Aditua al zara?

Camelia

(Barrez) Baita zera ere. Zaletu hutsa. Nire best-sellerren artean Patricia Highsmith eta Agatha Christie daude.

Bidaiaria

Herioaren bi dama! Ba hara, ene laguna... barkatu, zure izena esango zenidake? Nire bizitzan ikasitako azkeneko gauza izango da.

Camelia

Camelia dut izena. Tira, eta baita Lopez ere.

Bidaiaria

Benetan? Camelia! Izen ederra da. Ba, begira, Camelia laguna, pozoia dagokionez, baztertu egin dut, estetikoki ez dut maite... Bai, bai, badakit, Flaubert, Madame Bobary... Baina ez da nire estiloa; eta gainera, igual azkenean tripakomina edo halako zerbait izan dezakezu. Ez dut inoiz maite izan sufritzea. Pozoi zoragarri horiek eleberrietan daude, baina ez dituzte botiketan saltzen.

Camelia

Barkaidazu, baina uste dut ez dituzula kontuan hartu barbiturikoak. Jende askok erabiltzen ditu, ondorio onekin.

Bidaiaria

(Nahigabe keinu batez) Baina sekulako betekada behar duzu, ikartzeko modukoa. Ez, ez, beste zerbaitez mintza gaitezen, eta, gasari dagokionez, ezta aipatu ere, mese dez, etxeikoegia. Nire ama zena gasarekin saiatu zen (Malko bat xukatzen du. Arras goibel dago, baina berehala buelta ematen dio esanez:) hara, trabarik egiten ez badizu, pipa bat erreko nuke. Debekatuta al dago hemen?

Camelia

Ez, jauna. Eta gainera inor ez dago agerian! (Tontakeria honek barre eginarazten die, gizonari ahul samar)

Bidaiaria

(Pipa trabatuz) Pipa hau azkenetan dago. Pipa testamentuduna! (Pizten du) Nik ez dut erretzen, aizu.

Camelia

Kalte handia egiten al dizu, jauna?

Bidaiaria

Bihotzeko kontuak. Bypass bat daukat egina, eta karbonozko balbula jarrita.

Camelia

Ba primeran daramazkizu. Ez zaizkizu batere sumatzen.

Bidaiaria

Barnean baitaude.

Camelia

(Bat-batean eta sekulako ideia bururatu izan bazitzaion bezala) Eta labana?

Bidaiaria

Ez, odolagatik. Dena kristo egina uzten du.

Camelia

Ba Japonian, beste-sellerren arabera, ohore handiko suizidioa omen da. Harakiria.

Bidaiaria

Aristokrata eta japoniarra izan behar da, eta gainera ezpata berezia eduki. Bestela, txapuza hutsa besterik ez da egiten, eta tentu handiz hartu behar da une hori. Nahikoa egina dut aurretik erridikulua, amaieran ere artaburuarena egiteko eta gainera dena odoletan uzteko, eta gainera, nork esaten dit niri nahikoa indar izango dudala halako ezpata bat tripetan sartzeko eta hesteak alde batetik bestera ebakitzeko? Kultura bakoitzak berea dauka. Utz itzazu japoniarrak beren gauzekin! Hori ekialdeko suizidioa da eta goi mailakoa. Hemen herri honetan —edo Madrilen, berdin zait—, tripak irekitzeari nazkagarria deritzot eta, gainera, zaila; edo zaila eta, gainera nazkagarria, ez dakit.

Camelia

Barkaidazu, ikusten dut barnetik sentitzen duzula.

Bidaiaria

Irakurri al duzu Rilke?

Camelia

Ez, jauna.

Bidaiaria

Olerkari alemana. Inoiz ez da egon best-seller zerrendetan. Ba, arrazoia zuen.

Camelia

Zertan?

Bidaiaria

Nork bere heriotzaz hil behar du. Eta bera, noski, arrosa baten zitzadarekin hil zen.

Camelia

(Ezusteko alaitasunarekin) Ene, halako edertasuna bat-batean! Arratsaldea poesia bihurtu da.

Bidaiaria

Horrenbesterako? (Apal) Ez zen nire asmoa, egia txiki bat esatea besterik ez nuen nahi. Okerrera naturala deitzen duten heriotza da, hortxe, jainkoaren menpe, eritasuna, zaharreria, eta istripua aipatu gabe. Hori bai zerrikeria galanta!

Camelia

Eta onena?

Bidaiaria

Norbere eskuko heriotza, andrea. Jainkoaren aurrean puzkerra botatzea bezalakoa da, eta barkaidazu esaera, baina ez zait besterik bururatzen. Azkenaldian abilitate literarioekin eskas nabil. Harkaitz eta itsaso gaineko amildegiak edertasun galanta dauka.

Camelia

Alegia, buruaz beste egitea arte bat dela.

Bidaiaria

Arte ederrenetako bat, ezbairik gabe. Alkoholari eta tabakoari buruz, ba horiek ez dira ia suizidioak. Motelegiak eta, azkenean, beste zerbaitez hil zaitezke. Lehengoan hil zen heriotza naturaleko, amona mendebaldeko, ene barkaidazu bertsoa!

Camelia

Ehun eta hogeitun urte, egia da! Frantzian.

Bidaiaria

Emakume horrek dexente zahartu arte sekulako puruak erretzen zituen. Fida zaitez tabakoarekin. Droga baboa da. Maiteago dut alkohola, baina zirrosi arriskua dago, gaixotasun itsusia.

Camelia

Heroina duzu.

Bidaiaria

Diru asko behar da, eta ni idazlea naiz. Bankuak atrakatzen ere ez dakit; eta dama zahar bati poltsa lapurtzeak lotsa emango lidake. Tira, lokian edo bihotzean pistola tiroarena dago, baina ez diot inori opa.

Camelia

Dena narras jartzen al da horrela ere?

Bidaiaria

Baita, gerta daiteke ere, ez hainbeste ordea, baina zalantzarria da, baldin eta parabellum on bat ez baduzu. Ez, ez; amildegitik ur gainera edo harkaitzetara jauzia kenduta, hobe azkena jarrera estetiko txukunean akabatu gero, besoak zabalik... horrela... Ulertzen al didazu? (Cameliak keinu batez baieztatzen dio). Ba, hori kenduta, habearena edo arbolarena dago.

Camelia

Nola habearena edo arbolarena?

Bidaiaria

Betiko urkatzea.

Camelia

Egia da. Zoragarria izan behar du. Ez al duzu ba habe sendo bat etxean?

Bidaiaria

Soka ona da ez daukadana. (Barre egiten du). Barkatu txantxa; badaukat bai edo bestela erosi egingo nuke; baina etxean jende asko dago, gora eta behera beti.

Camelia

Eta gertuko basotxoren bat?

Bidaiaria

Zerorrek esan duzu: basotxo. Landatu berri dute eta adar ahul batzuk baino ez ditu. Gainera jende askok ezagutzen nau herrian eta ez ninduten bakean utziko. Jakina, gauzez egin daiteke; baina gauzez lo egitea gustatzen zait. Ikusten duzunez, gauzak ez dira uste bezain errazak, eta horrekin ulertzen da munduan dauden suizidio duinen eskasia. Nire azkeneko zalantza zen, zuk Timoteo Jaunaren ideia zoragarria eman aurretik — ordain ezineko ideia bikaina—, nire azken zalantza zen, nioenez, amildegia eta esentzia artean, ulertzen didazu. (Cameliak ezezko keinua egiten du) Esentzia esan al dut? Noski, filosofikoa dirudi. Galizismoa bat da, frantsesetik ekarria. Gasolina esan nahi dut; eta Timoteo jaunak kale egiten badit, eta amildegia huts, ba ez dut baztertzen egitea, esaterako Partido Socialista Obrero Españoleko egoitza baten aurrean, edo Polanco enpresariaren bulego baten aurrean, kutsu politikoa emateko edo. Ederra da, nahiz eta apur bat budista, ekialdekoegia ere baden.

Camelia

Bonzo eran erretzea, giza sute bat bihurtzea. Bat nator zurekin! Zure suizidioa protesta bat da. Edo ez?

Bidaiaria

Suizidio bakoitza protesta bat da, Camelia andrea. Eta salaketa bat. Horrexegatik gozaten dut falangista jaun horrek joko didan tiroarekin pentsatuta. Hori bai amaiera ederra! Batez ere ondo erortzen asmatzen badut eta irudi polita osatu lur gainean. Ea konbentzitzen dudan Timoteo jauna tiroa lorategi batean jotzeko.

Camelia

Esaten badiozu aberriari traidore bat dela, beharbada bertan akabatuko zaitu. Saiatu lorategi batean esaten, badaezpada, eta horrela naturaren apainketa aprobeitza dezakezu. Segur aski, manteltxoekin dagoen jantoki batean hiltzeak ez zaitu konbentzitzen.

Bidaiaria

Saiatuko naiz parke eder batera ekartzen. Ba al dago parke ederrik inguruan?

Camelia

Gabriel Miró Parkea dago, hortxe bertan, erdialdean, eta arrunt polita da.

Bidaiaria

Harritzen nau Timoteo jaunak nahi izatea, baina saiatuko naiz. Ea zer bait bururatzen zaidan. Honek eleberri baten antza dauka. (Geldialdia. Cameliak kuriositatez begiratzen du)

Camelia

Idazlea zarela diozu. Ez zait zure izena burura etortzen. (Egin berria duen fitxa begiratzen du). Ez zara oso ezaguna izango. Gutxiengoan idazlea?

Bidaiaria

Ezta hori ere. Gutxiengoentzat arruntegia naiz.

Camelia

Eta gehiengoentzat?

Bidaiaria

Bereziegia.

Camelia

Ba, ondo zaude zu.

Bidaiaria

Zeuk esan duzu.

Camelia

Ba ez dirudi hori aitzakia denik. Zu bezalako asko egongo dira.

Bidaiaria

Gehienak.

Camelia

Baina jendeak ez du bere buruaz beste egiten horregatik.

Bidaiaria

Ezta nik ere.

Camelia

Jende guztia izan da best-seller bat.

Bidaiaria

Hara, Camelia. Izan dezagun bakea.

Camelia

Haserretu egin al zara?

Bidaiaria

Ez, baina batzuetan horrela hitz egiten dut. Barkaidazu. Nago... nola da hori? Lur jota nago. Hori da: zeharo lur jota.

Camelia

Ez ezazu horrela hartu. Berriketan gaude, ezta?

Bidaiaria

Camelia, ene Camelia. Jasan dezakedan ospea baino apur bat gehixeago daukat nik. Ez da hori nire arazoa.

Camelia

Orduan? Nor da (fitxa irakurriz), Al-fon-so Sas-tre hau? Hainbesteren arteko beste idazle bat, esaterik badago?

Bidaiaria

Ez, andrea. Hainbesteren arteko ez. Ni, munduko hirurehun mila antzerki idazle onenetako bat naiz.

Camelia

Ordua zergatik zure buruaz beste egin, gizona?

Bidaiaria

Horixe jakin nahian nabil, egin aurretik. Baina ez da beharrezkoa dena jakitea. Spleen pixka bat pentsatzen dut.

Camelia

Asperdura.

Bidaiaria

Ez nuke esan nahiko. Hara, Camelia, bere buruaz beste egiteko gustu ona duen edonork, norbaiten edo zerbaiten kontra egiten du. Ados al gaude?

Camelia

Ez dakit ba, jauna. Halaxe dirudi! Nire iloba bat nire anaiaren kontra suizidatu zen.

Bidaiaria

Alegia, bere aitaren kontra. Ohikoa da. Niri dagokidanez, ni Espainiaren kontra suizidatzen naiz. Azkenean, esan dut! Aski da ala ez?

Camelia

Bai, jauna, nahikoa.

Bidaiaria

Buruaz beste egiteko gehiegizkoa da, badakit, baina ni tipo apur bat harroa naiz, eta ez naiz txikikeriatan ibiltzen.

Camelia

(Ez daki zer esan) Nolakoa zaren! Eta zergatik halako suizidio potoloa, garrantzitsua? Ez al da gehiegi?

Bidaiaria

Baina, hara, nik Espainia gorroto dut. Alegia, doilorra naizela. Edo ero bat. Edo biak batera.

Camelia

(Kartesiana itxuraz) Ez, ez, hori ezinezkoa da, jauna. Doilorra eta eroa batera ez da inoiz ikusi! Eroak ezin dira doilorrak izan. Doilorrak ezin eroak izan; ez dakit ondo azaltzen dudan.

Bidaiaria

Ni, neska maite, horretarako eta gehiagorako gai naiz; baina batez ere canción española gorroto dut, eta Rocio Jurado, eta Espainia cañi orokorrean. Eta Manolo Escobar, eta Fernando Savater eta Javier Gurruchaga eta Cristina Almeida, Rosa Luxemburgoren aldaera komikoa dena. Eta Andaluzia? Andaluzia gaixoa! Handik beti dator Queipo de Llano Jeneralak. Eta Chiquito de la Calzadak eta Antonio Muñoz Molinak botaka hasteko gogoa ematen didate. Nik antzerki española gorroto dut, eta telebista española, eta tertuliak españolak, eta kazetaritza española, eta Guardia Civil Española, eta la Fiesta Nacional Española, bere zezen hil-urrenekin, eta Partido Socialista Obrero Español eta Ejercito Española eta Conferencia Episcopal Española eta Democracia

Española, beherakoa eragiten didana gainera. Eta batera gorrotatzen ditut Millan Astray eta Camilo José Cela bere laguntzua, eta Legionarioen Tertzioak, Izuaren ordezkariak direnak, a!, eta, Banca Española. Ni, Camelia andrea, edo Camelia anderea, herio arratsalde honetako ene laguna, anti-Espainiakoa naiz, eta, sortu aurretik eta bihar ere, hil ondoren, kontubernio judeo-masoniko-rojo-separatistan nago, garaitua izan zena, ene jainkoa, garaituak izan ginenak, gerra zibilean... española! Hantxe amaitu zen dena! Hura Troia izan zen! Zer nahi duzu egitea! Urkamendira igo eta modurik estetikoenean akabatzea baino beste biderik ba al daukat? Ulertzen al didazu orain? Pitokeriak esaten ari naiz?

Camelia

Nire aitona anarkista zen, baina gure etxean inoiz ez zen horrelakorik aipatu, eta orain ni, jauna, zure hitz bitxiak harritu egiten naute.

Bidaiaria

Zuen etxean inor ez zen aitona mintzatzen, badakizu zergatik? Arriskutsua zelako. Anarkia (Gora anarkia! oihukatzen du), anti-España zen, eta Larra anti-España zen, eta komunista ilun eta heroikoak anti-España ziren, Espainiako Errepublika anti-España zen, eta barrikadetako madrildarrak anti-España ziren, eta Terueleko Mendilerroko espartinen milizianoak anti-España ziren, eta Blas de Otero, eta José Bergamín... espainiarra zela uste zuen ero hura... anti-España ziren, eta Baroja, eta Machado eta Valle Inclán anti-España ziren, eta oraintxe egiten dut nik hemen, airean, eta sinatzen dut (zirriborro bat egiten du airean) nire testamentua.

Camelia

Zer duzu, jauna? Gaizki al zaude?

Bidaiaria

Ez da ezer; beso hautsi bat besterik ez, Walter Mittyk esango zuen bezala, edo baita: ez da ezer; barnetik negar pixka bat egiten ari naizela besterik ez. Etzaidazu kasu handirik egin. Hau literatura da... ideia poetiko bat da, edo, nahi baduzu, arte kritika bat. Espainia arrunt zatarra da, esan dezagun horrela. 98 koitadua! Iluso halakoak! Hobe esanda, Espainia arrunt zatar dago. "Ez dira pasako!", izan zen gure azken guda oihua, azken hasperena. Eta espainiak pasa ziren. Eta hementxe daude. Txakur txikia beraientzat, eta ken nazaten ni bertatik, behin betirako ken nazaten.

Camelia

(Lasai, aholku on bat ematen dio) Orduan bonzoarena egin ezazu Madrilen, Zarzuela Jauregiaren aurrean. Oso adierazkorra geldituko litzateke, baina zalantzen

aurrean, eraman itzazu ohar bat eta argazkilaria. (Gogoetatsu) Uste dut errua dela halako herri batera etortzea zure egunei amaiera ematera.

Bidaiaria

Alacanterako biletea ordainduta neukan, ez dakit, Aurrezki Kutxako zerbait, eta niri bost axola hau edo bestea; eta gero Pepek, nire koinatuak, esan zidan hemen Valdemarren bazegoela amildegi bat non jendeak bere buruaz beste egiten zuen; eta zorionekoa ni hoan etorri naizelako zuk primerako ideia eman didazulako. Orain hiltzaile falangista bikain bat aurkitu behar dut, Timoteo jauna laguntzeko prest ez badago.

Camelia

Ondo pentsatu ezazu tontakeria bat egin aurretik, eta zoaz Madrilera. Hemen igual notizi txiki bat besterik ez da aterako "Informaciones" egunkarian, eta akabo.

Bidaiaria

Emakumea, EFE agentziak berria zabalduko zuen. Nik daukat, traidore zikina izan arren eta ETA zein HBko ingurukoa izan, Literaturako Sari Nazionala. Oraindik ez naute iraganeko zerrendetatik kendu eta antologia batzuetan agertzen naiz.

Camelia

Tira, agian zerbait aterako zuten Madrilen, baina hobe da gauzak ondo egin.

Bidaiaria

Milesker zure aholkuagatik. Nire plana azalduko dizut, eta gero guzti hau kazetariren bati konta diezaiokezu, bateren bat etortzen bada: gau honetan Timoteo jaunarekin mintzatuko naiz. Esango diot, adibidez, EGIN egunkariarekin kolaboratzen dudala.

Camelia

Timoteo jaunarentzat hori akuilua izan daiteke.

Bidaiaria

Eta esango diot ere badirela hogeit hamar urte Hondarribian bizi naizela, eta Madrilen jaiota ere, euskal hiritarra naizela, eta ez dudala uste Espainia batze sakratua dela. Horrekin ez badizkit zazpi tiro jotzen, beste bat bilatuko dut, ene Camelia! Ene Camelia! Orain atseden pixka bat hartzera noa.

Camelia

666 logela, Piztiaren ikurra. (Irribarre goxoa egiten du).

Bidaiaria

Gabon, Camelia. Ulertuko zenuen guzti hau txantxa bat zela.

Camelia

(Bere horretan) Ni ere txantxetan ibili naiz, jauna. Arloko profesional ontzat hartzen naute, eta 10 bat atera nuen Elkarriketan eta Bezeroei Arretan.

Bidaiaria

Dena dela, berriketaldi goxoa izan dugu, ezta?

Camelia

Oso goxoa, jauna, niretzat behintzat. Beste kopatxo bat hartuko zenuke?

Bidaiaria

Inor ez ageri? (Barre egiten dute).

Camelia

Ez, inor ez. (Tragoak ateratzen ditu) On egin, Alfonso jauna.

Bidaiaria

On egin, on egin, ene Camelia. Ba al dakizu inoiz ez zaitudala ahaztuko? (Pentsatuz) Tira, inoiz horrek iraungo du... denbora gutxi, baina izango da... eternitate oso bat... bihotz gaixo honetan.

Camelia

(Hunkituta) Ezta nik zu ere, inoiz ez. Gabon.

(Bidaiariak giltza eta bere ekipaia eskasa hartu ditu. Igogailuan sartzen da, handik gutxira 666garreneraino heltzen dena. Iluna sartzen doa egoera honen gainean, aurretik azaldu nuena, eta ondoren garatu "Ana Klaiber"-en. Baina berehala musika bat entzuten da eta zerbaitek iragartzen du —argiak— ekintza oraindik ez dela amaitu).

EPILOGOARI EPILOGOA

Cameliak bere comptoirra uzten du eta aurrerantz dator, publikoari zuzenduz:

Camelia

Biharamunean, zerbitzari batek atezaintza honetara eman zuen abisua 666 logelako bezeroa agertu zela soka batetik urkatuta, segur aski bere kartera txikian zeraman, bere ekipaia arinean. (Geldiune luzea) Baina kotua hori baino interesagarriagoa da. Polizia eta zaintzako epailea agertu ziren, hilotza jaisteko agindu zuena. Jaitsi zutenean, hildakoa barrez hasi zen. Antzerkiko trikimailu batekin zintzilikatu zuen bere burua. Lurrean zela, barkamenak eskatu eta epaileari esan zion idatzi behar zuen antzerki lan baterako froga bat zela. Epaileak isun bat jarri zion alarma sozialagatik edo antzeko zerbait eta bidaiari bitxia etxera joan zitzaidan bisitan, eta barkamenak eskatu, honela.

(Bidaiaria sartzen da eta aurre aldean jartzen da ere. Biek publikoari begiratzen diote, ondorengo esaldiak elkar trukutzen badituzte ere:)

Bidaiaria

Zer iruditu zaizu txantxa?

Camelia

Egitan txantxa bat izan zen ala azken unean damutu egin zinen?

Bidaiaria

Azken unean damutu nintzen eta zuk duzu errua. Hain une goxoa pasa nuen! Izatearekin adiskidetzeari bezala izan zen. Zerbait oso metafisikoa.

Camelia

Nahiko nuke bizitzan garaile aterako bazina. Nahiko nuke Jacinto Benavente bezain egile garrantzitsua bazina, Alfonso jauna, nahiz eta horretarako apur bat edadetua iruditu. (Bere fitxa begiratzen du) 71 urte. Ez dirudi!

Bidaiaria

Eskerrik asko

Camelia

(Beste aukera bat bururatzen zaio eta bat batean ozenki esaten du:) Edo, gutxienez, Alfonso Pasoren antzera!

Bidaiaria

Gauza zailagoak ikusi izan dira.

Camelia

Etor zaitetz hemendik noizbait.

Bidaiaria

Egingo dut. Tira, eta orain bizitzen jarraituko dut nire heriotza naturala heldu arte, eta nire etsaiak izorra daitezela, ze demontre. Ene jende onak! Bihotz onberak! Hemendik agurtzen zaituztet eta oharkarik makurrena opa dizuet, edozein ospitaleko gela zorrienean.

Camelia

Amaiera latza da.

Bidaiaria

Pio Barojarena da, eta amaiera ona da. Beraz, inporta ez bazaizu, Camelia, iluntzen hasiko da agerraldi hau, eta oihala erortzen.

(Horixe gertatuko da mantso, beren irudien gainean, orain geldirik)

AMAIA